

GERNIKA-LUMOKO UDALA
GURASO ETA AITONA-AMONEN IKASTALDE BEREZIAK
(2014-2015 ikasturtea)

XEDE NAGUSIA

Lehentasunezko jotzen diren giza taldeei **euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko** baliabideak eskaintzea da Gernika-Lumoko Plan Estrategikoaren xede nagusietako bat, 2003-2008 eta 2009-2013 epeetarako indarrean egon diren Planetan (EBPN) eta baita orain onartu berria dugun 2014-2017 eperako Euskara Sustatzeko Ekintza Planean ere. ESEPk lantzen dituen esparruetatik, 14.a dugu “Helburuak lortzeko zehar lerroak” deitzen dena; hortxe kokatzen da txosten honekin lotutakoa:

4.- Helburua: Helburuak lortzeko zehar lerroak

4.14.- Esparrua: Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.2.- Neurria: Familia Transmisioa (Toki erakundeak)

14.2.1.- Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonenga eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko

14.2.1.1.- Guraso eta aitona-amonenganko sentsibilizazio kanpaina burutu, ikastalde eta ikastaro bereziak sortzeko

14.4.- Neurria: Euskalduntze-alfabetatzea (Toki erakundeak)

14.4.1.- Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea

14.4.1.4.- Euskararen ezagutza beharrak aintzat hartu eta ikastaroak antolatu ikastalde brezientzat eskualdeko euskaltegietan

Helburu horrekin lotuta, Gernika-Lumoko Udaleko Euskara Zerbitzuak kanpaina berezia eratu zuen 2006-2007 ikasturtean Aita Villasante Udal Euskaltegiarekin eta Gernikako AEK Euskaltegiarekin elkarlanean, hauen esku utzita ikastarook ematea.

Esan beharra dago, ikastaro hartzaileen tipologia kontuan hartuta, euskaltegietan erabiltzen izan den modulazioa giza talde horientzat ez zela



aproposa. Beraz, hausnarketa egin ondoren, **modulu arruntetik kanpo** eratu behar zirela konturatu ginen.

Aipatu ikastalde berezien artean, **guraso eta atona-amonen kasua** hartu zen aintzat. Ordutegi aldetik eta ordu kopurua zela eta, eskolaratzeko arazoak izanik, 60 orduko modulu bereziak eratu beharra ikusi genuen eta hala egin izan zen sasoi baten (2006-2009). Dinamika egokia sortu ostean, eskaerak gehituz joan ziren eta ordu kopurua igotzeko demanda ere. Beraz, aurreko bost ikasturteetarako 120 orduko moduluak eskaintzeari eutsi zaio eta kanpaina, gure ustez, ezin emankorragoa gertatu da:

IKASTURTEA	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013	2013-2014
GURASO KOPURUA	35	22	42	66	40

2011 urtea geroztik, aldaketatxo bat dugu planteamenduan: euskalduntze taldeak baino ez dira sortzen. Lan hori, bere bizkar hartuko du Gernikako AEK euskaltegiak. Ikasturte honetarako (2014-2015) **31 fitxa** jaso dira (**I eranskina**: fitxa eredu).

EUSKALDUNTZEKO IKASTARO BEREZIEN ESKAINTZA

Helburua:

HABEko A1/A2 maila lortzeko beharrezana duten guraso eta aitona-amonen prestakuntza eskaintzea da helburua. Emaitzak aurreko ikasturtean oso onak izan diren heinean eta ikasleek ordu kopurua gehitzeko eskaerak nola egin zituzten kontuan harturik, modulazioa iazko berbera mantentzea erabaki da.

Ikastaldeak (31 ikasle):

1. Taldea: astearte eta ostegunetan 10:00etatik 12:00etara, 11 ikasle.

Maila: euskalduntzearen A1.1 maila

2. Taldea: astelehen eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara, 9 ikasle.

Maila: euskalduntzearen A1.1 maila



3. Taldea: astearte eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara, 11 ikasle.
Maila: euskalduntzearen A2.1 maila

Modulazioa:

- 120 ordukoa, asteen 4 ordu.

Jarraipenerako bilkurak:

Hilean behin bilduko dira ikastaldean ardura izango duten euskaltegi-tako arduradunak eta Euskara Zerbitzuko teknikariak ikastaldean jarraipena egiteko (aprobetxamendua, emaitzak, asistentzia, jarrera,...). Ikasturte osoko ebaluazioa egingo da jarraipen batzorde horretan ikastaroa amaitutakoan eta 2015-2016 ikasturterako Udal Eskola Kontseiluak egingo duen lehenengo bileran emango da horren berri.

Beste baldintza batzuk:

- Dohainekoak izango dira ikastaroak.
- Ikasleei kobratuko zaiena, materialerako 60 euro besterik ez. Finantzaketarako HABEra joko da eta defizita Gernika-Lumoko Udalak hartuko du bere bizkar.
- Gutxieneko asistentzia: %80. Hortik beherakoa balitz, justifikatu egin beharko luke ikasleak klasera joan ez izana. Horrela ezean, klaseetatik kanpo geratuko litzateke ikaslea.
- Gurasoak/aitonak/amonak Gernika-Lumoko ikastetxe batean izatea semeren/ilobaren bat.

Gernika-Lumoko, 2016ko azaroaren 11n.


Bittor Zarrabeitia Bengoa
Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria I



IKASTAROAK ANTOLATZEKO KRONOGRAMA GURASO ETA AITONA/AMONEN IKASTALDEAK

ZER	NORK / NON	DATA
GURASOEI FITXAK BANATU	Banaketa eskolatan burutzekoa	Irailaren 15ean
BATZARRA (aurreko ikasturteko balorazioa)	Udal Eskola Kontseilua (Hezkuntza Zinegotzia, eskolotako ordezkariak eta HNT1)	2014ko irailaren 23an
FITXAK BILDU	Eskoletatik eta euskaltegietatik	Epemuga: urriak 10
BATZARRA (Gernikako AEK Euskaltegiarekin)	Euskara Zerbitzua eta AEK euskaltegia	Urriak 15
TALDEAK ERATU	AEK Euskaltegiak	Urriak 16 / urriak 24
IKASTAROAK HASI / AMAITU	AEK Euskaltegian	Urriak 27 / Ekainak 13




I. ERANSKINA

CURSOS BASICOS DE EUSKERA PARA PADRES Y MADRES **(EUSKALDUNIZACION)** **EUSKARA IKASTAROAK GURASOENTZAT / ZAINTZAILEENTZAT**

El Area de Euskera del Ayuntamiento de Gernika-Lumo oferta cursos básicos de euskaldunización en colaboración con el Euskaltegi de AEK de Gernika con la finalidad de ofrecer unos **CONOCIMIENTOS BÁSICOS DE EUSKERA A LOS PADRES / MADRES NO EUSKALDUNES.**

- **Puedes ayudar en las tareas de casa a tus niñ@s.**
- **Puedes motivarles con tu actitud.**
- **Y te enriquecerás...**

Guraso erdaldunak ezagutzen dozuzala? Ba, animatu eizuz!

Características del curso:

- Grupos de un mínimo de 8
- Duración: de noviembre a junio (120 horas).
- Dos sesiones de dos horas cada una a la semana
- Precio: 60€ (25% del coste real; el resto lo asume el Ayto de Gernika-Lumo)
- **Prematrícula hasta el 10 de octubre**
- **Plazas limitadas**

Ficha de prematrícula (a entregar en el centro escolar)

Aurre-matrikularako fitxa (eskolan aurkezteko)

Nombre y apellidos / Izen-abizenak: _____

Centro escolar con el que se relaciona: _____

Zein ikastetxegaz daukazun lotura

Telefonoa: _____



<p><i>Cual es tu nivel de euskera?</i> Zein da zure euskera maila?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Empiezo de cero / Ez dakit ezer <input type="checkbox"/> Entiendo algo / Zeozer ulertzen dut <input type="checkbox"/> He hecho algún cursillo / Ikastaroren bat egin dot
<p>Indica con una X el horario que prefieres Adierazi X batez gurago dozun ordutegia</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Mañanas / Goizean <input type="checkbox"/> Anocheecer / Iluntzean
<p>Escoge una de estas opciones Aukera bietatik bat hautatu</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Lunes y miércoles / Astelehena eta eguaztena <input type="checkbox"/> Martes y jueves / Martitzena eta eguena